



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2009-04-09**

VIIURTEA 1.675.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Institutuan Euskararen Eguna ospatu zuten atzokoan; ikasleek eta irakasleek hartu zuten parte. A. IMAZ

Aberri Egunean parte hartzera deitu du Bai Euskal Herriaririk

TOLOSALDEA Eskualdeko herri ekimenak «Aberri Egunari ongietorria txoko guztietan» egitera gonbidatu zuen, Lizartzan eginiko agerraldian 6

EUSKARA ALDARRIKATU DUTE LEITZARREK 7



Klaratarren kongregazioa 1612tik dago Tolosan; Korreo kalean egon ziren eta 1966tik Zumardi Txikian daude. J. SAIZAR

Isiltasunaren kabia

TOLOSA Aste Santuen ospakizuna aitzaki, Santa Klara komentuko mojen egunerokoa ezagutu nahi izan du HITZAK gertutik 2-3



Eskulturak «ikusgarriak dira»; apirila osoan zehar izango dira ikusgai. A. IMAZ

Herri Ostatuan eskultura ikusgarriak ikusgai apirila guztian

HERNIALDE Urtzi artistaren lanak jarri dituzte, tamaina txikikoak dira eta salgai ere badaude 7



HITZAri buruzko informazioa

HITZAren hurrengo alea **apirilaren 15**ean argitaratuko da.

**Ongi
pasa!**

ISILTASUNEAN, OTOITZEAN



Santa Klara komentuko hamar moja errosario garaian, arratsaldean, elizan; falta den moja ohean gaixo dago. Egunean zehar askotan elkartzen dira otoitz egiteko. JOXEMI SAIZAR

Erljioa » Aste Santuan gaudela eta, Santa Klara klausura komentuko mojen martxa ezagutzera inguratu da HITZA: bizimodua, lana, otoitza...

JOXEMI SAIZAR

Atezain automatikoa duten komentuko bi ateak gurutzatu eta beste mundu batean sartzen zara, isiltasunaren mundua, kanpoko trafikoaren soinuekin kontrajarriz. Lokutorioan bi moja agertu dira irribarez, bere bizimodua azaltzeko prest. Ez daude garai batego burni-sareak, leiho zabala baizik.

Klartarren kongregazioa 1612tik dago Tolosan. Miguel Perez de Mendiola izan zen komentu honen sortzailea, lehendabizi bere etxean, Iturriza dorrean, Korreokalean, eta 1666tik gaur egungo lekuan, Zumardi Txikian, «merka-

tuengatik isiltasunik ez zutelako eta baratarik ez zutelako» trasladata zirenetik, komentuko kronikak dioenez. Komunitateak lau aldiz utzi behar izan zuen: Konbentzio gerran 1794ean, Independentzia gerran (1808-15) eta Lehen Karlistadan 1834ean eta 1837an. Gerra Zibilean, berriz, berriak hartu zituzten Arenys de Mar-eko (Bartzelona) moja batzuk komentuan.

Bi solairu eta ganbara ditu komentuak. Lehen solairuan, elizarekin batera, sarrera, laneko tailerra, lokutorioak, sukaldea eta jan-gela daude. Bigarrenean 40 logela daude eta ganbaran beste zortzi lo-

Teilatuak 3.000 metro koadro baino gehiago hartzen ditu; dena behar dutela diote

Bisitan edo elizkizunetara joaten den jendearekin harreman handiagoa dute gaur egun

gela (gaur egun erabiltzen ez direnak) eta arropa lehertzeko erabiltzen duten leku zabala. Kanpoan baratza, oiloak granjan eta ardiak mendian dituzte. Ostatua emateko gela batzuk ere prestatu zituzten, baina edozeinentzat ez dute uzten «ez dutelako errespetatzen». Bakarririk katekista, erlijioso edo mosen familientzat uzten dituzte. Teilatuak 3.000 metro koadro baino gehiago hartzen ditu. Dena behar dutela diote.

40 izatetik 11 moja izatera

Garai batean 40 moja izatera iritsi baziren ere, gaur egun hamaika besterik ez daude. Urtebetean lau hil zaizkie. Gehienak 67-82 urtekoak dira, bat ohean gaixo dagoena, baina badira gazteagoak: duela bi hilabete Hondurastetik etorri diren bi moja, 27 eta 42 urtekoak, eta 42ko beste bat. Honduraseko frantziskotar baten bidez eskatu zuten sarrera eta urtebetez papearak egiten aritu ondoren iritsi dira Tolosara Joana eta Ventura ahizpak. Oso pozik omen daude. Zaharrena berriz, 94 urtekoa da. Tolosaldeko bi moja besterik ez daude, Bedaioko Genobeba eta Ramona Zabala ahizpak. Gainontzekoak gipuzkoarrak, nafarrak, bizkaitarrak eta Logroñoko bat dira. Gehienak euskaldunak direnez, euren artean asko egiten dute euskaraz eta otoitz batzuk ere bai.

Kapelua Santa Maria parrokiako Jose Uranga apaiza da. Eta baratzan laguntzera joaten diren jubilatuz batzuk ere badituzte. Bestela, sendagilea eta konponketak egitera joaten diren langileak dira komentu barrura sartzen diren pertsona bakarrak. Hala ere garai batean baino gehiago ateratzen omen dira kalera, paperak egitera edo sendagilearengana joateko. Eta bisitan edo elizkizunetara joaten den jendearekin ere harreman handiagoa dute gaur egun.

«Otoitz eske etortzen da jendea. Beti dago zer eskatu: nahiko pena bada, lana gutxitzen ari da, gaixotasunak, azterketak...», diote komentuko arduradunek. Eguraldi ona eskatzeko otoitz egitea eskatzen joaten dira batzuk, horretarako 13 arrautzeko dozana eramanez, baina garai batean baino gutxiago.

Bizimodua bi hitzetan laburbil daiteke: otoitza eta lana. Egunean zehar hainbat une dituzte otoitzeko. Eta goiz eta arratsalde lanearako arteak ere badituzte: kanporako arropa garbitu, baratzen, josten, elizako arropak bordatu, gaixoak zaindu, garbiketa, sukaldian... Tartean, txandatu, norbait dago adorazioan. Afalondoren izaten dute tarte bakarra beraien artean kontutan aritzeko, egunean zehar gertatutakoak edo kanpotik jakindakoak komentatzeko. Lanean ari direnean garai batean baino gehiago hitz egiten dute, baina isiltasunean bizitzen saiatzen dira. Gauean ez dira jaikitzen, lehen bezala, meza ondoren egiten dute irakurraldi hura.

«Diru gutxi sortzen zaigu, baina gastatu ere gutxi egiten dugu», diote. Mantenu gastu handienak kalefakzioa, argia eta horiek dira. Moja zaharrenen jubilazioa da diru sarrierarik handiena. Lanetik pixka bat ere jasotzen dute, asko ez, etalimosna ere iristen zaizkie.

Bizimodu patsadatsu honekin pozik bizi dira Santa Klarako moja bere lau paretan artean. Aste Santuko egunak ere hala pasatuko dituzte, «festa giroan», elizkizun eta egitarau bereziarekin, jende gehiago hurbiltzen zaiela.



Honduraseko bi moja gazteak eta abadesa patrioko landareak zaintzen. J.SAIZAR



Terraza ederra eta animalientzko granja daukate barruan. J.SAIZAR



Komentuko liburutegia. J.SAIZAR

» ORDUTEGIA

- **07:00.** Jeiki (batzuk lehenxeago, besteel laguntzeko).
- **07:30.** Otoitz isila.
- **08:00.** Laudes eta meza.
- **09:00.** Otoitzaldia: irakurketak (hiru salmo eta bi irakurgai) eta tercia (hiru salmo).
- **09:30.** Gosaria.
- **09:45.** Norberak bere gela mol-datu.
- **10:00-13:00.** Lana: arropa garbitu, baratza, josi, bordatu, gaixoak zaindu...
- **13:00.** Sexta (hiru salmo eta otoitz bat).
- **13:15.** Bazkaria.
- **14:00.** Atsedena: siesta, irakurri, garbitu, paseatu...
- **15:45.** Otoitza: nona (hiru salmo eta otoitz bat).
- **17:00.** Lana: goizeko lan bere-tsuak.
- **18:30.** Errosarioa.
- **19:00.** Bezperak.
- **19:30.** Otoitz isila, irakurketa edo kantu entsaioa.
- **20:00.** Afaria.
- **21:00.** Telebistari albisteak ikusi, normalean ETB2, batzuetan ETB1 ere bai.
- **22:00.** Errekreoa.
- **22:20.** Azken otoitza.
- **22:30.** Lotara.

«Klausurak esan nahi du Jaungoikoarekin hitz egiteko denbora gehiago hartu behar dugula»

MIKAELA URROZ ETA GENOBEBA ZABALA › Santa Klarako abadesa eta bikaria

Mojak › Santa Klara komentuko arduradun nagusiekin izan gara: Mikaela Urroz abadesa eta Genobeba Zabala bikaria

J.SAIZAR

Mikaela Urroz da Santa Klara komentuko abadesa gaur egun, Saldiaskoa (Nafarroa) da, eta Genobeba Zabala bikaria, Bedaiokoa. Beste ahizpa ere bertan du. Genobeba betidanik egon da Tolosako komentuan, 27 urterekin moja sartu zenetik, eta Mikaela (20 urterekin joan zen moja) duela hamaika urte etorri zen Entrenatik (Logroño) beste bi mojakin batera, hango komentua itxi zenean.

Zer moduz bizi zarete?

Otoitzean eta lanean. Kanpoko jendeak diru gehiago nahi du, baina guk ez dugu antsia hori, konforme eta pozik gaude daukagunarekin. Zoriontsu nola izan bilatu behar dugu.

Moja klase asko dago: gaixoekin lanean, irakaskuntzan, behartsuekin... Askotan egingo zizueten galdera: zergatik zarete klausurako mojak?

Orain jada ez dute lehen adina galdetzen. Bakoitzak bokazio desberdina sentitzen du eta bokazioari segitu behar zaio. Otoitzeko bi-



Genobeba Zabala, ezkerrean, eta Mikaela Urroz, lokutorioan. J.SAIZAR

kazioa daukagu. Klausurak esan nahi du Jaungoikoarekin hitz egiteko denbora gehiago hartu behar dugula. Gu horretarako gaude. Erakusteko, gaixoak zaintzeko eta gauza horietako badira beste moja batzuk. Gero eta gutxiago, hori bai. Eta gauza horietarako badago bes-telako jendea ere, baina otoitza egiteko kanpoko jendeak ez du arreta eta denbora hartzen. Oso beharrezkoa da Jaungoikoari otoitz egitea, jendearengatik eta Elizarengatik eskatzea. Eskatu eta esker-erak ematen dizkiogu. Gauza asko eman dizkigu Jainkoak. Guri behintzat bai. Hori da gure lana, guk bezala otoitz egiteko honelako toki batean bizi behar duzu, beste-

la ezin duzu. Otoitzean ari garenean hori errespetatzea eskatzen dugu eta ez dugu ez deiari segitu behar dio. Pazy bien jartzen du sarrean, San Frantziskoren leloa da hori. Orain bizitzeko mugimendu handiak egiten dira, hau eta bestea egin behar da. Bizitza honetan zertarako gauden pentsatzeko eta ezertarako denborarik ez da gelditza. Jaungoikoari garrantzirik ez zaio ematen.

Aste Santua dator. Zuentzat garrai berezia al da?
Bai. Beste era batera aritzen gara. Festa bat bezala da guretzat, dena berezia. Eguneroko martxa zerbait aldatzen dugu: Erramu egunean gure menditik ekarritakoak bedeinkatzen ditugu zimitorioan, elizkizunik ez dugu goizetan, frantziskotar bat etortzen da irakurraldira, eta jendea ere bai, gurutzbi-dea egiten dugu, koruan denbora gehiago pasatzen dugu otoitzean, arratsaldeko elizkizunetan jende gehiago izaten da...

Kanpoan asko aldatu da Aste Santua. Eta hemen barruan?
Ez, lehenago aldatu zen, duela 35 bat urte edo. Orduan latinez egiten zen dena, irakurketa gehiago, ofizio gehiago... Baina azken urteetan ez da aldatu ez.

Berriki nola jasotzen dituzue?

Jendearekin bizi gara eta haiek datoz albisteekin. Telebistako albisteak ere ikusten ditugu. Tolosaldeko berriak HITZAN irakurtzen ditugu egunero. Oso ondo dago inguru honetako gorabehera jasotzeko.

Zerekin harrizten zarete telebista ikusterakoan?

Ez dugu asko ikusten, afiziorik ez dugu. Baina gauza batzuk ez zaizkigu ondo iruditzen. Pena handia ematen digu emakumei tratua. Dena utzi eta deiari segitu behar dio. Pazy bien jartzen du sarrean, San Frantziskoren leloa da hori. Orain bizitzeko mugimendu handiak egiten dira, hau eta bestea egin behar da. Bizitza honetan zertarako gauden pentsatzeko eta ezertarako denborarik ez da gelditza. Jaungoikoari garrantzirik ez zaio ematen.

Familia asko aldatu da.

Garai batean amabeti etxean zegoen, dena ondo edukitzen. Orain ez. Andreak ere diru badauka eta gizonaren diruaren esperon ez du egon behar. Familia horrek asko galdu du. Etxera biak nekatur etorri eta lana egin behar da. Lan gehiago bada pazientzia gutxiago izaten da. Banaketak hor datoz. Jendea gehiago ateratzen da, gehiago irabazten du, baina gastatu ere bai eta ez zaie denetarako iristen. Lehen une gehiago izaten ginen eta han ibiltzen ginen. Ezer ez zitzaigun falta, gustura geunden. Beste garai batzuk ziren.

Zein da zuen kezka nagusia?
Bata besteari laguntzeko osasuna izan dezagula. Eta mojetarako bokazio falta eta bukatzen den, gehiago izateko gure artean.

EUSKARAREKIN ERRAZAGO

Euskara » Ereite elkarte kulturantzak bultzatuta etorkinen seme-alabei zuzenduriko eskola bereziak ematen dituzte, astean behin, Tolosako Aitzol Udal Euskaltegian.



Ariketa ugari egiten dituzte jolasen bitartez. Kasu honetan, animalien dominon ari dira jolasen ikasleak.

INGO TERRADILLOS

Ahala izan da euskara, lotaseta eta koldarra. Hala zen, askoren ustean, orain gutxiira arte. «Gaztelaniaz hitz egiten ikasi behar da bihurtu egunaren norbait izan nahi baduzu...» Horrelakoak entzutea oso normala zen. Baina, gaztelania trukearen hitz egiten zutenaren kontura barre egitea ere. Bigarren mailakotzat zuten askok euskara, batak batak pentsatu zuten zuzeneko ziurrenik, edo beste hainbat arazoarengatik.

Bestelako da, ordea, gaur egun egotza. Astean gutxi dira gurean bizitzeko euskara ikastea beharrezkoa ez dela uste zuteneko gariak. Euskarak gure egunerokoa duen garrantziak oharatu dira, bai bertan bizi eta ez dakitenak, bai eta kanpotik gurea bizitzeko etorritakoak ere. Badiu oraindik ere gaztelaniarekin nahikoa dela uste dutenak, baina, lehen ez bezala, euskarak duen bolumen badakite, hotez ere gurea bizialdo eskualde eskakuntzan.

Etorkinak euskarari bitzen Geroz eta gehiago dira atzerriko gure eskualdera bizitzera etorritakoak. Honek euskararen gainbehera ekarriko zuela ere uste zen, aurreko esperientzietan oinarrituta, baina, badirudi, ez dela horrela izan. Izan ere, etorkinak badakite euskara ikasteak asko errazten duela gizarteratzean.

Ereitek 2006an abian jarri zuten 'Murgilduz' programaren baitan kokatzen dira eskolak

«Euskara ikasteak gizarteratzea errazten du, horregatik da garrantzitsua ekimen»

Aitzol Udal Euskaltegian dugu horren adibide garbia. Izan ere, astean behin etorkinen haurrei zuzenduriko eskolak ematen dituzte. Tolosaldeko Ereite elkarte kulturantzak 2006an abian jarri zuten Murgilduz programaren baitan kokatzen da ekimen hau. Batek, etorkinek euskal gizartea eta kultura ezagutu eta euskara ikastea bultzatu nahi dute, eta besteak, gizarteratze erraztu nahi dituzte.

gurasoei azaltzen diegu eskola hauen nondik norakoak. Klase praktikoa izaten dira, modu arinean, hau da, jolasen bitartez osatutako normalean eta osagarri bezala. Boga multimedia azaltzen duen bezala, «kartak deialdi zabalzen ditugu Tolosako Samaniego, Hirukide eta Lasko-rain ikastetxeetara eta Ibarrola-Urtzupite ikastolara eskola hauen berri emanez, DBHko ikasleei zuzenduriko eskolak dituzte, hauen

lortu nahi da, gazte hauei euskara ikastea errealitate gisa aurkeztu eta errealitate gisa aurkeztu. Bereziki, taldean ere bultzatu nahi dugu, kultura desberdinen arteko erlazioak sendotuz, konturatu nahi dugu bezaraien egoera berean badirela gehiago, eta behin hori ulertu erlazio positiboak sortu, eta pizkarak sarak; eta garrantzitsua da guretzat, baita ere, ikastearen arteko elkarlana egotea, guztien gizarteratze errazte alderia».

Ereite elkarteak ikasleekin elkarlana egiten du. Aitzol Udal Euskaltegia euskara ikastea...

Guztira hamarika ikasle (mutiko bat falta da argazkian) jotzen dira asteotero Aitzol Udal Euskaltegia euskara ikastea.

gurasoei azaltzen diegu eskola hauen nondik norakoak. Klase praktikoa izaten dira, modu arinean, hau da, jolasen bitartez osatutako normalean eta osagarri bezala. Boga multimedia azaltzen duen bezala, «kartak deialdi zabalzen ditugu Tolosako Samaniego, Hirukide eta Lasko-rain ikastetxeetara eta Ibarrola-Urtzupite ikastolara eskola hauen berri emanez, DBHko ikasleei zuzenduriko eskolak dituzte, hauen

lortu nahi da, gazte hauei euskara ikastea errealitate gisa aurkeztu eta errealitate gisa aurkeztu. Bereziki, taldean ere bultzatu nahi dugu, kultura desberdinen arteko erlazioak sendotuz, konturatu nahi dugu bezaraien egoera berean badirela gehiago, eta behin hori ulertu erlazio positiboak sortu, eta pizkarak sarak; eta garrantzitsua da guretzat, baita ere, ikastearen arteko elkarlana egotea, guztien gizarteratze errazte alderia».

» INKESTA

Gustura jotzen al zara euskaltegia euskara ikastea? Erraza egiten al zaizu, ala pentsatzen zenuena baino zailagoa da?



Leilan Garcia
DOMINIO ERREKALAK, 10 URTE

Denbora gutxi daramat Euskal Herrian; hain zuzen ere, 3 hilabete Tolosan bizi naiz. Beraz, oraindik asko falta zaizkizula euskara ikastea. Dena dela, pizkarak pizkarak ari naizen arren, niri erraza egiten zaizkizula, eta gustatzen zaizkizula, gainera. Eskolan ere nahiko erraza ari zaizkizula. Euskaltegia etortzen naiz euskara azkarrago ikasi ahal izateko, eta horria ulermen arazok ez ditako.



Raquel Alejandra Zamora
MENDI, 10 URTE

Duela bi urte etorri nintzen hona bizitzera. Ibaran bizi naiz. Niretzat nahiko erraza da euskara ikastea. Egun, ia guztia ulertzen dudala esan dezaket, baina hasieran nahiko zaila egiten zitzaidan. Pasa den urtean udan etorri nintzen euskaltegia ikastea, eta orain, berriz, astean behin etortzen naiz. Asko gustatzen zaizkizula eskolara etortzea oso ondo pasatzen baitzagu ikasleentzako.



Bryan Arias
KOLAKA, 10 URTE

Sei hilabete daramatzat Tolosan bizi naiz. Pizka bat zaila da euskara ikastea esango nuke, baina, hala ere, oso gustura etortzen naiz euskaltegia euskara ikastea. Bi hilabete egiten dut ikastaro horietan etortzen. Oraindik asko gertatzen zaizkizula, baina ia dena ulertzen dut. Hitz egiten ikastea gertatzen zaizkizula. Niretzat zailena euskaldek egiten hitzak behar diren lekuan jarzea da.



Dorika Rodriguez
DOMINIO ERREKALAK, 10 URTE

Duela gutxi etorri nintzen Tolosara, 3 hilabete, hain zuzen ere, berriz, oraindik ere asko gertatzen zaizkizula. Pizka bat zaila da, baina ari naiz pizkarak. Ez nuke esango euskara ikastea oso erraza dela berriz zaila denik. Euskaltegia jartzen dizkizula ariketa eta ordenagailuko programak asko laguntzen dituzte, eta gainera gustatzen zaizkizula, primeran pasatzen baita.



Jose Martin Vichez Zelaya
KOLAKA, 10 URTE

Duela urte bat eta erdi etorri nintzen Tolosara bizitzera. Niretzat, zaila da euskara ikastea, niri behintzat zaila egiten zaizkizula. Orain, jendeak euskara hitz egiten didanean, ia guztia ulertzen dut, baina pizka bat ikastea falta zaizkizula, hitz egitea, baloz ere. Euskaltegia gustura etortzen naiz, oso ondo pasatzen baitzagu ikasleentzako. Ez zaizkizula aspergarri egiten, pizka eta antzerkiak egiten baitzagu.

«Kalean euskaraz hitz egin ahal izateko bidea erraztea da ikastaro hauen helburua nagusia»

YON GONZALEZ » Irakaskia

Euskara » Etorkin gazteetoxei zuzenduriko eskolak ematen ditu Aitzol Udal Euskaltegia; hamarika ikasle osatzen dute gela.

» TERRADILLOS

Aurten hasi da euskara irakasten Yon Gonzalez (Tolosa, 1986) Aitzol Udal Euskaltegia, hamarika ikasle osatzen dute bertan, eta tartean, etorkin gazteetoxei zuzendurikoak. **Nola hasi zineten eskola hauek ematen?** Pasa den urteko udan hasi ziren, eta harrera oso ona izan zuten, jarampuna egiten erabaki zene, eta orain astean behin egiten dugu. Hain zuzen ere, asteartetan izaten dira eskolak, 18:00etatik 19:00ora.



Astean ordu bateko gutxi to ez al da zaila euskara ikastea? Aste gutxi da, eta eskola batek bestera dagoen tartea luzea izan daiteke, baina eskola hauek bereziki dira. Izan ere, ikastearen ikastea dutenaren osagarri edo izan nahi dute. Hauen helburua euskara gehiago berritzea da, lortu nahi duguna da ikastea errealitate gisa aurkeztu eta errealitate gisa aurkeztu. Bereziki, taldean ere bultzatu nahi dugu, kultura desberdinen arteko erlazioak sendotuz, konturatu nahi dugu bezaraien egoera berean badirela gehiago, eta behin hori ulertu erlazio positiboak sortu, eta pizkarak sarak; eta garrantzitsua da guretzat, baita ere, ikastearen arteko elkarlana egotea, guztien gizarteratze errazte alderia».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel: 943-65 56 95

hilberriak urteurrenak eskertzak



«Ez gaituzte geldituko»

ANOETA ● Anoetako Gaztetxean astelehen gauean izandako lapurreta salatzen manifestazioa egin zuten herenegun herrian. 40 bat lagun bildu ziren eta bertan Gaztetxean 10 urteetako ibilbidea gogoratu zuten.

«Nazka-nazka eginda gaude», esan zuten, izan ere 2006 urtetik zazpigarren aldia da lapurretan egiten dietela. «Azkeneko miaketek eta lapurretek ez gaituzte geldituko», gaineratu zuten gazteek. R.CALVO



Irteera Gazte Martxa dela-eta

TOLOSA ● Bihar hasiko da Amaiurretik Garazira joango den Gazte Martxa 09 eta honen harira Tolosaldeko gazte independentistek mendiri teera egin zuten Mendikutera pasan den larunbatean. Gazteak gailurrera igo zi-

ren eta hamaiketako egin zuten bertan; ondoren Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldia ere izan zuten. Gailurra utzi aurretik gazte independentistek ikurrina eta Nafarroako bandera utzi zituzten bertan. HITZA

Aberri Eguneko «olatu erraldoiarekin» bat egitera deitu du Bai Euskal Herriarik

Lizartza ● Tolosaldeko herri ekimeneko kideek Aberri Eguna aldarrikatzeko deialdia egin zuten herenegun.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Bai Euskal Herriari herri ekimenak agerraldia egin zuen Lizartzan hilaren 12ko Aberri Egunerako deialdia egiteko. Bertan bildutakoek aurtengoan «euskal herritar guztiak bat eginda gure aberriaren eguna ospatzeko inoiz baino arrazozi gehiago» dardelaren esan zuten. «Sasi-demokrazia izenean gure herria eta herritarren eskubideak zapalduak, urratuak eta bortxatuak izaten ari» direla ere azpimarratu zuten.

Lizartzako Udaleko egoera ere salatu zuten: «Ez dugu Lizartzan gertatzen dena errepikatzerik nahi. Herriaren erabakia indarrez



Tolosaldeko Bai Euskal Herriari herri ekimeneko hainbat kide elkartu zen herenegun iluntzean Lizartzako plazan. HITZA

eta Lizartza polizia arrotzek zorrotz zaintzen duten espetxe bilakatu dute. Bertan geurea den ikurrina zapuztu eta espainiarren bandera jarri dute egunerokoan herritarrek jakin dezaten nork agintzen duen, noren menpe bizi diren».

«Zailtasun hauek guztiak gaituzteko» euskal herritar gehienek Bai Euskal Herriari *Nazio bat gara, zazpiak bat, burujabetza* lelopearekin bat egiten dutelaren esan zuten eta horregatik Aberri Egunean Irundik Hendaiarako martxan parte hartzeko deia egin zuten eta

baita «etxeko balkoi, leiho, txoko eta mendikaxko guztietan» ikurrinak jartzera ere.

«Izan zirelako gara eta garelako izanen dira! Gure herriaren etorkizuna guztion eskuetan dago. Beraz, denok dugu asko egiteko Euskal Herri euskalduna eta askea eraikitzeko bide honetan», gaineratu zuten.

Era berean, Villabonako Udalak Irundik Hendaiarako martxa nazionalen parte hartzeko eta balentzian ikurrinak jartzeko eskatu die herritarrei. Ikurrinak herriko okindegietan eskura daitezke.

Laburrak

Aste Santuko elizkizunak herri desberdinetan

ERLUIJOA ● Aste Santuak direla-eta elizkizunak izango dira herri desberdinetan. Gaur, Ostegun Santua, 11:00etan izango da meza Elduan; Elduain 17:30ean; Berrobin 19:00etan; eta Berastegin 16:00etan. Bihar ostirala, berriz, Elduan eta Elduain 17:30ean izango da meza; Berrobin 19:00etan; eta 16:00etan Berastegin. Ostiral Santuan, gainera, gurutz bideak izango dira Elduan, Berastegin eta Berrobin 9:30ean eta 10:00etan Elduain. Larunbat Santuan lau parrokiak meza Elduain izango da 21:00etan.

Maiatzaren 3an izango da XVII. Ibilaldi Neurtua

BERASTEGI ● Berastegiko Basurde kirol-elkarteak Ibilaldi Neurtuaren XVII. edizioa antolatu du maiatzaren 3rako. Ibilaldia gutxienez sei ordu eta erdian egin behar da eta gehienez 8 ordutan. Izen emateko (5 euro) 690 140 951 telefono zenbakira dei daitezke edota Zelai tabernara gerturatu.

Aurkeztu dute jada Erremonteko III. Masterra

ELDUAIN ● Larunbatean hasiko da maiatzaren 16ra arte iraungo duen Erremonteko III. Master Pacharan Baines 09. Zortzi bikotek hartuko dute parte, tartean Elduango Zerberio II eta Amezetako Altuna II. Larunbateko final-laurdenetako lehen partidari Altuna II-Etxabek Iñigo-San Miguelekin aurka ariko dira eta igandean, aldiz, Zeberio II-ek Ezkurra-Olazarren aurka jokatu dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Leitzako Amazabal institutuan Euskararen Eguna ospatu zuten atzo kontzertu eta guzti. A. IMAZ

Amazabal institutuan Euskararen Eguna ospatu dute jolas eta algaren artean

Leitza » Irakasleek, ikasleek eta gerturatu zen guztiak IKA Euskaltegiaren aldeko diru bilketan parte hartu zuten.

ASIER IMAZ

Giro politean ospatu zuten atzo Euskararen Eguna Amazabal institutuan. Irakasleek, irakasleek eta gerturatu zen guztiak ospakizunarekin bat egin zuten.

Etxeko filma, gosaria, kontzertua eta musean

Goizean goiz ekin zioten lanari institutuko ikasleek. Lehenik Leitzan grabatutako 40 ordu filma

ikusitu zuten. Ez denek, izan ere, ikasle batzuk gosaria prestatzen hasiak ziren.

Euskararen Egunean lortu zuten diru guztia IKA Euskaltegiarentzat izaki, gosari herrikoia antolatu zuten.

Sabelabete ostein, hainbat ikasle eta euren lagunek kontzertua eskaini zuten. Musikaren doinue-tatik urrun, beste hainbat Mus Txapelketa jokatzeko aritu ziren.

Irakasleen aurka

Une politena herri kirolekin etorri zen. Lehenik irakasle talde bat frontoian korrika hasi zen, beroketa lanetan edo. Harmailetan zeuden ikasleek algara ederrak bota zituzten, izan ere, ikasgelatik atpa-

rez pare zituzten irakasleak. Ondoren denek batera jolas egin zuten, gogotik eta giro politean gainera.

Talde ugari aritu ziren herri kiroleko probetan. Lokotx bilketan, zakuarekin korrika, soka-saltoan, sokatiran... Irakasleak lurrean ez zuten ikusgai ikusgai ikusgai ahuntzaren ezutla ikasle batentzat eta gutxienez atzokoan gozamen hori izan zuen batek baino gehiagok.

Euskararen Eguna sari banaketarekin eta zozketaren irabazleekin amaitu zen atzokoan. Lehen aipatu bezala, zozketako dirua ere herriko euskaltegiarentzat bideratu zuten ospakizunaren antolatuzaileek.



Bosgarren mailako antzerkia

LEITZA » Amazabalen Euskararen Eguna ospatzen ari zirenean bitartean, Erleta Eskolako antzerkigara joan ziren. Bosgarren mailako ikasleek *Hemen Bai Giro!!!* antzezlanarekin aurkeztu zuten eskolako kide eta hainbat gu-

rasoren aurrean. Nafarroako Gobernuaren antzerkia sustatzeko martxan duen ekimenaren baitan kokatu zuten irakasleek atzoko emanaldia. Eskolako Tximista Taldeak eskaini zuen ikusizuna. A. IMAZ



Urtziren eskulturak Hernialdeko Ostatuan: joan, ikusi eta gozatu. A. IMAZ

Eskultura ikusgarriak Hernialdeko Ostatuan

A. IMAZ

Harritzeko moduko eskulturak daude ikusgai Hernialdeko Ostatuan. Ikusteaz gain, erosteko aukera ere badago, eta datu hau, aipamen bat baino gehiago albiste bat da; Ostatuan dauden eskulturak «artistakeriak» baitira.

Urtzik eginak dira eskulturak eta arteaz ezer asko ez dakiena ere gustura egoten da haiei begira, zer

pentsatu etengabearen iturri baitira artelan hauek.

Apirila guztian ikusgai

Hernialdeko Ostatu zabalik egongo da jai egun hauetan, asteartean izan ezik. Eskualdean gelditzen denak aukera bikaina dauka beraz. Horretaz gain, hilabete guztian zehar ere eskulturak Ostatuan egongo dira ikusgai.



@ Papereko Edizioa.

Sartu gure web orrian dagoen *Papereko Edizioa* atalean. Bertan egunkarian irteten diren albiste guztiak irakurtzeko aukera edukiko duzu. Bi eskualdeetako herrirenean gertatua jakin nahi baldin baduzu, sakatu herriaren gainean eta ondoren klik egin *Papereko Edizioan*, horrela herri horren gainean idatzi diren albiste guztiak ikusi ahal izango dituzu. Horretaz gain, gure web orriak albistearen inguruan duzun iritzia idatzeko aukera eskaintzen dizu. Sartu beraz ondorengo helbide elektronikoan:

www.tolosaldeko-hitza.info

Iragarki laburrak

LANA

■ **Bigi Garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak etab. garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. Irene: 638 94 46 04. Itsa-so: 695 70 82 71.

ALOKAIRUA

■ **Baserría edo borda.** Baserrí bat edo borda bat hartuko genuke alokairuan. Merke antzera. Egoerak berdin dio. Deitu: 634 45 9110.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Erakusketak

■ **Tolosa.** Mariano Arsuaga artista tolosarraren *Kaleidoskopia+12* erakusketa Aranburu Jaurregian.
■ **Tolosa.** Itziar Albisua zumarragarren olio-lan eta collage-ak Itaie tabernan.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako Galizara maiatzaren 11tik 17ra irteera antolatuta du 255 eurotan bazkideentzat (ez bazkideek 260 euro). Izen-ematea, elkartearen bertan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Mas alla de los sueños* filma gaur eta astelehenean Leidor aretoan 17:00etan.
A ciegas filma gaur 19:30ean eta larunbatean 19:30ean.
Hablame de la lluvia filma gaur 22:30ean eta bihar 19:30ean eta 22:30ean.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Bigarren Hezkuntzako graduatu titulora lortzeko proba libre aurki izango dira Tolosan. Izen-ematea Tolosako HHIn eman behar da, eta azterketa maiatzaren 20an izango da, EPAn bertan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
■ **Tolosa.** Ollarrea, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 672438.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

Urkizu eta Arozena txapeldun

Anoeta » Su-Berri pilota eskolako jokalariek Iparraldeko trinkete ligan irabazi zuten pasa den asteburuan.

ERREDAKZIOA

Zuberoako Garindaine herriko Urrupean trinketearen jokaturiko Iparraldeko Ligako txapeldun geratu ziren Itsaso Urkizu eta Nagore Arozena pilotariak, pasa den igandean. Su-Berriko pilotariak lehenengo aldiz iritsi dira txapelketa honetako finalera eta 30-25eko emaitzarekin Kanboarrak pilota elkarteak pilotariak mendean hartu zituzten «partida gogor baten ostean».

Iparralde liga oso goi mailako txapelketa dela esan liteke, egun neska mailan munduko pilotari onenak Ipar eta Hego Euskal Herrikoak baitira. Lauen artean hainbat munduko txapelketa eta kopa irabaziak dituzte. Azken urteetako munduletan, urrezko domina he-



Itsaso Urkizu eta Nagore Arozena pilotariak podiumaren gorenera igo ziren pasa den igandean. HITZA

goaldeko zein iparraldeko pilotarien esku geratu delarik. Azkenik, Itsaso Urkizu eta Nagore Arozenak beraien joko maila altua berretsi ahal izan zuten eta egungo munduko txapeldun tituluaren jabe direla erakutsi zuten. Gainera pixkana, mundu mailan beraien lekua egiten ari dira.

Balio handia izan du, beraz, final

hau irabaztea bi pilotariak finalaren amaieran «oso gustura» agertu ziren.

Goi mailako aurkariak

Maritxu Housset eta Maika Elguezabal izan zituzten aurkari eta kontuan izanda munduko onen-tarikoak direla goraiatzeko da euren garaipena. Hain zuzen ere,

Habanako mundukoan zilarrezko domina lortu zuen Elguezabalek. Houssetek berriz, 2006an Mexikon jokaturiko Munduko Euskal Pilota Txapelketan, urrezko domina lortu zuen. Azaroko Munduko Kopara ez zen joan hilabete lehenago haurra izan zuelako eta bere titular postua Elguezabalek berabete zuen.

A Agurrak



Urte askoan

Ixaskun. Biharko partez zorionak zure ahizpa Maialen, zure amatxo eta aitaxoren partetik.



Urte askoan

Iraia Gonzalez Azkolain (Tolosa). Igandean 3 urte. Zorionak Popoli, amatxo, aitaxo eta aiton-amonen partetik!



Urte askoan

Inge Vazquez Azkolain (Tolosa). Larunbatean urtebete. Zorionak bihurri lune, Naia eta gurasoen partetik!


agurrak urtebetetzak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



opor hauetan
atera argazkiak!



Sari mundialak



ARGAZKIAK NORA BIDALI

• **P. elektronikoa:**
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
• **Postaz:**
Argazki lehiaketa,
Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza,
Araba etorbidea 5 behe, atzea
20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo
Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri

Parte-hartzaile eta boto emailen artean
HITZAko materiala zozketatuko dugu!